# ttipi-ttapa

1994.eko abuztuak 11 • 140. zenbakia



## ITZALEAN HOBE

Argazkia: Karmele TOLOSA




Besta hauetan, Caja Rural-eko VISA eta Servired txartelekin, ez zaizu deus faltatuko. Zure dirua eskura izanen duzu Kutxazain sare zabal batean. Eta establezimendu onenetan ordaindu ahal izanen duzu. Ez ahaztu. Caja Rural-eko Txartelak erabili eta **BESTA ZORIONTSUAK!**

**CAJA RURAL DE NAVARRA**

tipi-ttapa
AMABOSTEKARIA

E GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

ITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

**ndaria:** Joxemanuel Iri-
n. **Publizitatea:** Miren Kar-
Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
Arozena, Joxemanuel Iri-
n. **Erredakzio taldea:** Pe-
pezetxea, Juainas Paul,
na Boan, Bittori Telletxea.
**iemaileak:** Joseba Azpi-
Esteban Arozena, Juana
Saizar, Ainhoa Mutuberria,
Isasi, Txema Aldabe, Pello
gia, Txema Urroz, Patxi
ndorena, Daniel Martirena,
el Maia, Josune Etxebeste,
o Mendiburu, Joseba Iga-
e, Alizia Olaizola, Margari
nike, Koro Irazoki, Mixel
ndiain, Jacqueline, Marta
a, Oskar Txoperena, Al-
Sansiñena, Pello Apeze-
Aitor Arozena, Kristina
n. **Kolaboratzaileak:** EHNE
rroa, Patxi Lasa, Josetxo
erregi.
**mategia:** Gertu (Oñati).
*ttapa*k ez du bere gain
en derrigorrez, aldizkarian
azitako erranen eta eritzien
zukizunik
**kunde Laguntzaileak:**
, Leitza, Goizueta, Areso,
an, Urdazubi, Zugarramur-
ta Sarako udalak, Bor-
tako Euskara Mankomuni-
, Malerrekako Zerbitzu
komunitatea...

dizkari honek Nafarroako
bernuaren laguntza jaso du





# Laister arte

Abuztua, beroa, uda, oporrak, bestak... Eta guri ailegatu zaigu laister arte errateko garaia.

Ale honetan herriz herri ospatuko diren bestetako programa batzuk eskuratzen dizkizuegu. Nora joan, zuen aukera izanen da.

Iraila bitarte ez gaituzue gehiago izanen esku artean, beraz, ongi pasa eta erran bezala, laister arte.

**ttipi-ttapa**

LEGARRA
• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •
ZERBITZUAK
Fax Publikoa
Enkuadernazioak
Inprenta lanak • fotokopiak
%25eko
deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan
Legarrea 9, ✆ 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK

ERRO
BIDAIAK
✘ HERRIAK
✘ MENDIAK
✘ TURISMOA
✘ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK
BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015
ADUANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

*Abuztuaren 12tik 17ra*



**Etxalarko dantzariak 1940. urtean**

Martin Sansiñena eta Mª Isabel Arribillagak utzitako argazkiak

**Ortzirala 12:**
**Emakumeen Eguna**
**Gaueko 9,30etan** Emakumeen afaria. Ondotik trikitixa

**Larunbata 13:**
**8etan** Herriko Etxetik airatuko den altxaferuak, besten hasiera adieraziko du. Herriko txistulariak, txaranga, buruhaundi eta kankailuak karrikaz-karrika ibiliko dira besta egunetako lehen saioa eginez. **12etatik 4etara** dantzaldia LUHARTS taldearekin. Tantirumairu txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

**Igandea 14:**
**10etan** Etxalarko II. Mendi Bizikleta Bilkura. **11etan** herriko txistulariak, txaranga, buruhaundi eta kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira. **5etan** herriko pilota txapelketaren finalak:
• Palaz neskak.
• Eskuz mutilak.
• Palaz mutilak.
**7etan** Lesakako Akordeoi Bandaren kontzertua. Arratsaldez eta gauez dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

**Astelehena 15**
**Andremari Eguna**
**10,30etan** argisoinuak txistulari, txaranga, buruhaundi eta kankailuekin. **11,30etan** meza nagusia. **12,30etan** herriko dantza taldeak bere saioa eskeiniko du Herriko Plazan. **6etan** herri kirolak; herriz herri txapelketa proba konbinatuan. **7etan** bertso saioa: Lizaso, Egaña, Sorozabal, Iturriaga. Gaijartzailea: Patxi Larretxea. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

**Asteartea 16:**
**Haurren Eguna**
Goiz eta arratsaldez, Motor Pista, Haizezko Gaz-


**LANDABURUA**
JANARIDENDA
*Besta zoriontsuak opa ditizue denei*
Tfnoa: 635047 • ETXALAR

LORA DENDA
TXIRULA
Bitiria ☎ 627542 LESAKA
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**BOTXO ostatua**
**Tfnoa.: 63 00 52**
**Zalain auzoa, BERA**

**ASADOR LA BASQUE**
Besta on batzuk pasa itzazue
Tfnoa: 635153 • ETXALAR

**IÑAKI ITURRIA**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Instalazio zaharren berritzeak
PORTERO AUTOMATIKOAK
*Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*
Jauregieta 12
✆ 635028 - 635246
31760 ETXALAR
Curtidores 5 - 1. ezk.
✆ (943) 61 24 24
20300 IRUN

**OKANE**
Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**




Juan Ansalas herriko fotografoak ateritako argazkia. Argazkilari honek joan den mende bukaeratik ateri zituen Etxalarko argazkiak.



Argazki zaharrekin postalak egiten ziren lehen. Honen gibelean 1925ko martxoaren 21ean idatzi zuten. Argazkia noizkoa den ez dakigu.

telua eta Zezen Mekanikoa. **2etan** Asau ttiki. **6etan** haurrentzako jokoak. **6etan** II. Etxalar mus txapelketa. Arratsaldez eta gauez dantzaldia LUHARTS taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga karrikaz karrika.

**Asteazkena 17**
**Asau Eguna eta Jubilatuen Eguna**

**10,30etan** argisoinuak buruhaundi eta kankailuekin. **10,30etan** herriko pilota txapelketaren finala eskuz eta palaz. **12,30etan** pilota partidua: Leiza-Apeztegia, Otxoteko-Salaberriaren kontra. **2etan** bazkariak: Gazteak ermitako zelaian. Jubilatuak Larraburuan. Arratsaldez eta gauez dantzaldia MARTIN taldearekin. Egunero bezala Tantirumairu txaranga ibiliko da karrikaz karrika giroa alaitzen. Herriko trikitilariak ere ibiliko dira.

**JOSEMA RAMOS**

*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*

✆ 631342 **BERA** • ✆ 637172 **LESAKA**

**ZALAIN**

**KARROZERIAK**
**TXAPA ETA PINTURA**

Tfnoa: 63 01 88 – **BERA**

**HARITZPE**
**JATETXEA**

**KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK**

*Sukaldaritzarik hoberena xokorik politenean*

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

**• ETXALAR (NAFARROA) •**

**HERRIKO OSTATUA ETXALAR**

***JATETXEA***

✆ **635290 • ETXALAR**

# ARANTZAKO BESTAK

*Abuztuaren 13tik 17ra*

**Larunbata 13**
**8,30etan** altxaferua Herriko Etxetik, bestari hasiera emanez. **9etan** kalejira herriko txistulari, akordeolari eta 'Izar' txarangarekin. **11etan** musika GAUBELA taldearekin, goizaldeko 3,30ak arte.

**Igandea 14**
**Gazteen Eguna**
**10etan** kalejira herriko txistulari eta akordeonistekin. **12,30etan** pilota partiduak herriko frontoian. **7etan** Lesakako Izar txaranga karrikaz karrika ibiliko da. Herriko frontoian herri kirolak izanen dira. Arratsaldez eta gauez dantzaldia ADUR taldearekin.

**Astelehena 15**
**Amabirginaren Eguna**
**10etan** kalejira txistulari, akordeonista eta txarangarekin. **11,30etan** meza nagusia. **12,30etan** bertso eta dantza saioak, herriko bertsolari eta dantzariak eskeiniak. Baita ere, akordeonistak, Xalbador Madariagak zuzenduak. **7,30etan** kirol saioa, aizkolariak, harrijasotzaileak (Mikel Saralegi), etabar... Arratsaldez eta gauez musika AGIRRE taldearekin.

**Asteartea 16**
**Haurren Eguna**
**Zaharren omenaldia**
**10etan** kalejira herriko txistulari eta akordeonistekin. **11etan** alkateak herriko zaharrenari plaka oroigarri bat emanen dio.






**OSIÑA JANARIDENDA**
*Besta ederrak pasa itzazue!*
Tfnoa: 63 41 88 • ARANTZA



**ATERPE jatetxea**
Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

**BURLADA JATETXEA**
Goiko Karrika
✆ 634027 • ARANTZA



**PRIMITIVO OSTATUA**
Besta onak pasa!
Goiko Karrika • Tfnoa: 63 40 52 • ARANTZA



**Pabloenea Jatetxea**
Goiko Karrika • ✆ 634077
• ARANTZA •

**ZUZAÑENEA OSTATUA**
Goiko Karrika • Tfnoa: 63 40 16 • ARANTZA




Haurren jokoak, haizezko gazteluak, trena... **12etan** pilota partiduak herriko frontoian. Herriko txapelketaren bukaera, Ekaitza elkarteak eta pilota eskolak antolatua. Sariak emango dira. **6,30etan** haur antzerki saioa plazan. 'Trokolo' zirko komikoa, jokoak eta berendua. Baita ere Izar txaranga. Arratsaldez eta gauez, musika ADUR taldea.

**Asteazkena 17**
**Familiaren Eguna**

**10etan** kalejira herriko txistulari eta akordeonistekin. **12etan** pilota partiduak, bertsolari eta trikitixak. **2,30etan** herri bazkaria eskoletan. **7etan** Izar txaranga eta bertsolariak plazan. Arratsaldez eta gauez, musika GAUBELA taldearekin.

**Oharra:** Herriko baz karian parte hartu nahi duenak, izena eman dezala herriko ostatuetan edo Ekaitza elkartean.




*© 631076 • BERA*

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: **63 71 27 LESAKA**

MASAIA ETA
Bizkortze ariketak
**TXOMIN IRAZOKI** (Fisioterapeuta)

- Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aitzinera
- Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aitzinera

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

ALKARTETXEA
JATETXEA
HARAGI ETA ARRAINETAN
ESPEZIALIZATUA
*Erreserbak egiteko deitu 627637 ☎ra*
Antoiu 26 • **LESAKA**



1915. urte inguruan lezeetan ateritako argazkia. Ageri denez, lehen harri kozkorretan jartzen ziren eta ez orain bezala bankutan. Emakumeak ez ziren ageri orduan.

**Larunbata 13:**
Goizean Iparreko Migel bere ultraligeroarekin zerutik goxokiak botatzen ibiliko da (eguraldiak laguntzen badu).
**Eguerdiko 12etan** besta hasierako suziria eta ezkil joaldia. Segidan poteoa Ezpeletako txarangarekin; **5etan** haur jostetak, ohe elastikoak; **7,30etan** txokolatada eta Pastiza txapelketa Plazan: 1. saria bi afari, 2. saria lore sorta bat; **11etan** piperrada; Arratsalde eta arratsean dantzaldia ZIRIKA taldearekin.
**Igandea 14:**
Herriko pilotaleku berriaren inaugurazioa. Goizean eta arratsaldean pilota partidak. Eguerdian herri bazkaria, Arzallus eta Arozena bertsolariekin. Egun guzian Tolosako Neka-Ezinak txaranga karrikak animatzen arituko zaigu, baita Baigorriko gaiteroak ere. Arratsalde eta arratsean dantzaldia URRATS taldearekin.

**Astelehena 15:**
**11,30etan** Meza Nagusia. Ondotik Herriko Etxeak aperitifa eskeiniko du. **12etan** makilariak. Ondotik Begiraleak Donibandar dantza taldea arituko da. **4etan** eskual jokoak. Tartean bertsolariak arituko dira, Txomin Amorena gaijartzaile dutela. **6,30etan** berriz ere makilariek eta Begiraleak dantza taldea. Dantzaldia ADUR taldearekin.
**Asteartea 16:**
**10etan** plater tiraketa. **12etan** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna. Ondotik aperitifa Urruñako Herburu txarangak animaturik. **4,30etan** ahate eta giltza jokoa Behitiko karrikan Amorenak eta Herburu txarangak alaiturik. **6etan** Atsulai dantza taldea arituko da. Dantzaldia URRATS taldearekin.
**Asteazkena 17:**
**10etan** eskea Aitor eta Daniel akordeolariekin herri guzian barna. **2etan** bazkaria eskean ibili direnentzat. **4etan** zikiro jatekotz tipul eta piper xe-

GOZOTEGI - JAIONE

Itzea 3, 630786 - BERA

IKABURUA
Ostatu-Jatetxea
Leorlas auzoa, leze ondoan
✆ 599222 • URDAZUBI

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera, 3.k
Tfnoa:599131 - URDAZUBI



LESAKA

KOXKONTA


Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria 67 – Tfnoa:637264



**Ahate jokoa 1955. urtean. Gibelean ageri den etxea Alondiga zaharra da, duela 25 bat urte bota zutena. Argazkian daudenak berriz, Juanito Alti, Joxe Mari Indaburu, Bittor eta Juan Irazoki, Luis Mendiburu, Joxe Arburua, Bixente Kamino eta Fermin Mendiburu**

haketa eta haragi prestatzea animatzen direnentzat. **4,30etan** Erramun Martikorenaren kantaldia. **6etan** Trapu Zaharra antzerki taldearen emanaldia. **10etan** rock kontzertua TXAKUN taldearekin. Dantzaldia SUSTRAIA taldearekin.

**Ortzeguna 18:**

**8etan** zikiro jatea prestatzen hasiko gira lezean. **12etan** Urruñako Herburu eta Iruñeko ORTZADAR txarangak eta KILIMIXKA gaiteroak. **2,30etan** zikiro-jatea. **6,30etan** larrain dantza plazan Kilimixka gaiteroek emanik. Dantzaldia SUSTRAIA taldearekin. Bestetako azken dantzaren ondotik ogi eta gasna eta arno pittat izanen dugu kontsola gaitezen.

Gauero, dantzaldiaren atsedenean (2,30ak alderat) Larrain dantza eta Mutxikoak.

ALTZATENEA JATETXEA
*Besta ederrak pasa!!*
Tfnoa: 59 91 87 - ZUGARRAMURDI

GAS SASKAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ANSALAS OSTATUA

HARATEGIA
JANARIDENDA
BESTA EDERRAK PASA
✆ 59 90 82
ZUGARRAMURDI

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA


KUPELA
SAGARDOTEGIA
Tfnoa.: 599231
Zugarramurdi

**Larunbata 13:**
**8etan** txupinazoa eta Riau-riau ; **9etan** Baztan Zopak (txartelak Urdazubi, Elizondo, Erratzu eta Amaiurren salgai), animazioa Joxe Angelekin; gaupasa ANKER taldearekin.
**Igandea 14:**
**11,30etan** Baztango I. Mendi Bizikleta bilgura. **12etan** III. pilota-goma txapelketaren finala; **7etan** sokatira (600 kg) Beti Gazte/Urrestilla/ Amaiur; **8etan** kantaldia Mikel Markez, Ihidoi eta Xalbador eta Pottoka. **11etan** sokamuturra. Gaupasa HARITZA taldearekin. **6etan** Zinger jatea monumentoan.
**Astelehena 15:**
**Ama Birjin Eguna**
**11etan** Meza Nagusia. II. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdiko Gasna Lehiaketa. **12etan** Hameketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. **12,30etan** Cross lasterketa; **4,30etan** artzaien desfilea eta XIX. Artzai zakur txapelketa. **7etan** Baztango eta Itsasuko dantzariak. Arratsalde eta gauez ARKAITZ taldearekin dantzaldia. **10etan** mutil-dantzak. **11etan** sokamuturra.
**Asteartea 16:**
**Haurren Eguna**
**11etan** haurren I. pilota txapelketaren finala. **5etan** Txoronpio eta Pantxi pailazoak. Ondoren, haur-jokoak eta txokolatada. **10etan** mutil-dantzak. **10,30etan** Herri afaria. **11etan** sokamuturra; dantzaldia ARKAITZ taldearekin.
**Asteartea 17:**
**Herritarren Eguna**
**2etan** zikiro-jatea Joxe Angelekin. **10etan** mutil-dantzak **11etan** sokamuturra. Arratsalde eta gauez IÑAZKI taldea eta besten bukaera.





**ERRATZU OKINDEGIA**
zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

**AYLA**
**ARGAZKI DENDA**
**Bixente Taberna**
* EZKONTZA ERREPORTAIAK
Argazkia eta Bideoa
**Legia 4 • BERA**

FZ
FOTO ZALDUA
**ZURE EZKONTZARAKO**
**FOTO eta BIDEO**
**Erreportai on bat**
**ELIZONDO ☎ 580491**
**DONEZTEBE ☎ 450364**
MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin

**AROZ BERRI**
**SAME**
POTENTZIA
ETA
TEKNOLOGIA
**TRAKTOREAK**
EUROPAN SARITUENAK, ORAIN HEMEN ERE
**Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021**

**Bestak**
**Jaiak**
**Pestak**
**Festak**
*Ongi pasa*
**ttipi-ttapa**
**hamaboskaria**



1976. urtean burutu zen lehen aldiz Amaiurko Artzai-zakur txapelketa. Argazkia orduan ateria da. Ezkerraldeko argazkiko asto karrerako partaideak, Javier Urrutia eta Felix Inda dira. Behitian, mutil dantzak dantzatzen, aspaldiko usadioa.

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak eta likorrak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Zurezko zoletan nahi duzuna
BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

AMAIUR
ALTZARIAK
Doneztebeko sarreran • Tfnoa: 45 04 00

Zure etxeko sukalde eta bainuak
Profesionalen eskutan jarri
Etorri eta konparatu kalitatea eta prezioa
BESTAK UMORE ONEAN PASA



**Larunbata 13:**
**Umeen Eguna**
**12etan** suziriak bestei hasiera emanez. Ondotik herriko akordeolariak. **5etan** jokoak eta azkaria umeentzat herriko plazan. **9etan** Baztan zopak. **12,30etatik** aurrera dantzaldia Joxe Angelekin.

**Igandea 14:**
**11etan** argisoinuak. **11,30etan** 'tiro al plato' herrikoentzat. **4,30etan** 14. pala txapelketaren finalak. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia GAUBELA taldearekin. Arratsaldean Berriozarreko txarangak alaituko ditu karrikak.

**Astelehena 15:**
**Ama Birjin Eguna**
**11etan** argisoinuak. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondotik Baztango dantzariak eta hameketakoa. **5etan** txirrindula laisterketa. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia GAUBELA taldearekin. **10etan** gau-suak. Arratsaldean txaranga.

**Asteartea 16:**
**Gazteen Eguna**
**11etan** argisoinuak. **2etan** gazteen bazkaria. **5etan** X. bizi-cross delakoa. Baztan ibaian barna. Arratsaldez eta gauez dantzaldia Bixenterekin

**Asteazkena 17:**
**Herriko Eguna**
**11etan** argisoinuak eta mus azkarra txapelketa. **2etan** bazkaria bertsolariekin. **9etan** motor lehiaketa. Arratsaldez eta gauez dantzaldia Josetxorekin.

**Ortzeguna 18**
Auzo Afariak.



**Duela 30 bat urte Iñauterietan ateritako argazkia. Bertan Oronoz-Mugairiko neska-mutikoak ageri dira**



**Garai batean, 'Pobre de Mi' berexia ospatzen zuten Oronoz-Mugairin. Argazkia duela 16 bat urtekoa da eta bertan okasiorako jantziak ageri dira.**

MIREN
ileapaindegia
ORDUA ESKA EZAZU
*Miren Gortari Sein*
*✆ 592310*
*ORONOZ-MUGAIRI*

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Famili Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • **ORONOZ-MUGAIRI**



ANSONEA
Jatetxea
*Kontsultatu menu bereziak*
Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • **BERA**

- Jardinak apaintzeko landareak
- Barneko planta extranjerotik ekarria
- Marokkoko artisau lanak
- Koroiak
- Ezkontzarako apaingarriak

ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER

**MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan**
Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**



**Joan den urteko bestetan, bazkariaren ondotik ateritako argazkia. Aurten ere, eguraldiak laguntzen badu, errekara sartuko dira gazteak. Digestiorako ona ez da izanen, bainan freskatzeko...**




BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

SOULE
GURUTZE ETA HILARRIAK
✆ 453038 ARIZKUN
✆ 123572 IRUÑA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDAKO MODA
ARROPAK • TELAK • BITXIKERIAK
...eta behar dituzun konplementu guziak
MERKEALDIAK

**Igandea 14:**
**Arratseko 9,30etan** kalejira txistulariekin. **Gaueko 12etan** arbola altxatzea; **12,30etatik 5ak arte** dantzaldia ALMEN taldearekin.
**Astelehena 15:**
**11etan** Meza Nagusia, ondoren joaldunak; **12etan** bertsolariak. **1etan** aizkolariak: Mindegia aita-semeak, Jaunarena eta Loiarteren aurka. **9etan** Askaingo dantzariak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia ALMEN taldearekin.
**Asteartea 16:**
**12etan** mus txapelketa. **6etan** futbito partiduak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia ALMEN taldearekin.
**Asteazkena 17:**
**10etan** plater tiroketa. **6,30etan** pilota partiduak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia REKALDE ANAIAK taldearekin.
**Osteguna 18:**
**Ilunabarrean** antzerkia Marimba kolektiboarekin eta dantza eta soinua trikitixa eskolarekin. Dantzaldia REKALDE Anaiak.




Aizkora apustua Amabirjin egunean burutuko da aurten ere


**ORMAETXEA OKINDEGI-OSTATUA**
Besta zoriontsuak pasa!
Tfnoa: 45 01 69 • ZUBIETA

**ERRANDONEA OSTATUA**
*Besta zoriontsuak pasa itzazue!*
Tfnoa: 45 02 16 • ZUBIETA



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793



ARROPAK
*Udako arropa koloretsuak*
Lekuz aldatzen da
Abuztutik aurrera:
Doneztebeko Parrokia 9ra • Tfnoa: 450883

ARRANO

OSTATUA
Legarrea – **LESAKA**

1994ko Abuztuak 11 / 2. zkia

**T** Hiruhilabeteko
**xokoa**

*Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordeen Argitalpena*

**Argitaratzailea:** Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)
**Montajea , Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa

# *Gure herriotako euskara ikertzeko beka*

Azkeneko hilabeteotan Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako euskara ikertzeko proiektua gauzatzeko lehenengo urratsak eman dira. Ikerketa hau burutzeko beka-deialdi bat zabaldu zen eta hiru proposamen ezberdin aurkeztu ziren. Hiru hauen artean, Patziku Perurena eta J.Jose Zubirik aurkeztutakoak eskuratu du beka eta beraz, aurrerantzean ikerketa honi ekinen diote hurrengo urtean bukatzeko asmoaz.



Bertako euskalkia prestigiatzea, memoria historikoa gorde eta aberastea, galtzeko arriskuan dauden forma eta esaerak gordetzea eta herri komunikabideetan bertako euskararen aberastasuna txertatzea dira besteak beste ikerketa honen helburuak.

Udaletik ikerketa hau egiteko proposamena luzatu zenean, honako helburu hauek aipatzen ziren:

**Helburuak**

**1.** Herritarren euskarekiko atxikemendua indartu eta sustatzea. Lehen esan bezala herritarrek hurbilen sentitzen dutena etxean ikasitako euskara da eta kasu askotan ezagutzen duten aldaera bakarra. Beraz, euskarekiko atxikimendua eta motibazioa sendotzeko oso komenigarria izanen da ***bertako euskara prestigiatzea***.

**2.** Herritarren ***memoria historikoa gorde eta aberastea***. Memoria historikoa, eta honen barruan hizkuntz altxorra gorde behar da eta aberastu, kultura eta hizkera propiorekiko afektibotasunari eusteko eta belaunaldiz-belaunaldi igarotzeko.

**3.** ***Eskola nahiz euskaltegiko irakasleei bertako hizkera*** hobeki ezagutzeko aukera eman, haur eta ikasleei transmititu eta gazteek ere ondare hori jaso dezaten. Sarritan gertatzen da irakasleek ez dutela bertako hizkera ezagutzen edota materiala falta zaiela ezagutza hori trasmititu ahal izateko. Ikerketa honetan bilduriko materiala, hain zuzen ere, hutsune hori neurri batean betetzeko erabil liteke.

**4.** Denboraren poderioz ***galtzeko arriskuan dauden forma eta esaerak gordetzea***. Zoritxarrez, gaurko gizarte azkarraren eraginez, orain arte euskaldun zaharrek gorde eta erabili dituzten forma, hitz eta esaera ugari galtzeko arriskuan daude berehala jasotzen ez badira.

**5.** ***Herrian eginen den edozein ihardueera osatu***, apaindu eta aurkezteko material egokia edukitzea. Atal honetan nahi ahala ekimen sar daitezke: ekitaldi publikoak, bestetako egitaraua, bandoak, kultur ekintzak...

**6.** Euskarazko komunikabideak herrian hobe txerta daitezen laguntzea. TTIPI-TTAPA eta Karrapek egiten duten lanaren arrakastaren gakoa hurbiltasunean datza, zalantzarik gabe. Hurbiltasun honetan sakontzeko eta erakargarritasun handiagoa lortzeko bide egokia izanen da ***herri komunikabide hauetan bertako euskararen aberastasuna txertatzea.***

Sei helburu hauek aipatu baditugu ere, dudik gabe askoz gehiago izan daitezke, eta lana denontzat oso aberasgarri izan daiteke. Gure asmoa da ikerketa honekin material praktiko eta erabilgarri bat sortu eta herritarrei zabaltzea. Gure hizkeraren aberastasuna zaindu eta indartzeko.

# Festetan zer ordutan etxera?

Askotan topatu dugu komertzioren batetan gisa honetako esaldiak: «Hoy abrimos a las 7».

Garbi dago eta horregatik dudarik gabe, zaila egiten zaigula « holakoak» euskaraz idaztea; «ezbaitakigu...». Dena den ez ausartzea da arazoa» besterik ez. Horregatik, hiruhilabetean behin TTIPI-TTAPAren paper horixta hauetan «idazteko ere» kaleratuko ditugun aholku (kontseju) hauek, beti pentsatu izan baitugu zer ikasterik beti badela.

«Etxetik Plazara» gehigarriak duela gutxi zenbakiak nola idazten ziren azaltzen zigun, orain berriz, ORDUAK, nola idatzi daitezkeen azaldu nahi dizuegu.

Orduak adierazteko modu asko aurkituko ditugu Euskalerrian baina, hona hemen denontzat egokiak izan daitezkeenak;

**Oraingo honetan NOIZ galderari erantzunez:**

| | | |
|---|---|---|
| — Ordu bata | = | ordu batean |
| — Ordu bata eta bost | = | ordu bata eta bostean* |
| — Ordu bata eta laurden(a) | = | ordu bata eta laurdenetan* |
| — Ordu bata t'erdiak | = | ordu bata t'erdietan |
| — Ordu biak | = | ordu bietan |
| — Ordu biak laurden gutxi | = | ordu biak laurden gutxi(ago)tan* |
| — Hirurak | = | hiruretan |
| — Laurak | = | lauretan |
| — Bostak | = | bostetan |
| — Seiak | = | seietan |
| — Zazpiak | = | zazpietan |
| — Zortziak | = | zortzietan |
| — Bederatziak | = | bederatzietan |
| — Hamarrak | = | hamarretan |
| — Hamarrak eta bost | = | hamarrak eta bostean |
| — Hamarrak eta laurden | = | hamarrak eta laurdenetan |
| — Hamar(rak) eta laurdenak | = | hamar(rak) eta laurdenetan* |
| — Hamar t'erdiak | = | hamar t'erdietan |
| — Hamaikak | = | hamaiketan |
| — Hamabiak | = | hamabietan |

* Asterisko eta parentesi () tartean agertzen dena, aukera besterik ez du azaltzen, hau da: erabili daitekeela edo zenbait tokitan erabiltzen dela.

***Ariketa:*** — Ama gaur «San Tiburtzio» egunaren bezpera dela , ze ordutan etorri behar dut etxera?

— Gaur? Gaur gaueko hamabietan etxera, eta gehienez, hamaikak eta laurdenetan.

— Ama pentsatzen dut ikasi ditugun ordu guztiak ongi ikasi ahal izateko ordu txikiak ere kontatzea, beraz «gaupasa» egitea, ezta?

# Bitxikeriak

«Hizkuntzak baditu mila zoko izkutu...». Hala diote telebistako saio ezagun batean. Eta jakina da, sekretuak mutur aurrean eduki eta ezin argitu ahal izatea baino amorrazio handiagoa ematen duen gauzarik ez dagoela. Horregatik, gure inguruan, ezkutuan edo erdi ezkutuan daudenak hatzeman nahirik liburu-jorran hasi gara gure herriaz edota gure herrikoek kontatzen dizkigutenetatik «altxor preziatuak» jasotzeko asmotan.

Eta hara non, hainbeste urtetan euskaltzain buru izandako Azkue jaunak eskaintzen digun aurreneko bitxia. Hark idatzitako artikulu batetik atera dugu honako hau: Ez omen da oso aspaldiko kontua Leitza eta Huitzin «telegrafista» esateko «Peio Batista», eta «luz eléctrica» adierazteko, berriz, «ziliputrika» esaten zela.

Hauekin, eta Euskal Herriko beste herri batzutan bildutako zenbait hitzekin, Azkuek, beste hizkuntzetako hitzak gureganatzean egin ohi ditugun moldaketa berri ematen zigun.

Baina ez gara horrelako bitxikeriatan geratuko, izan ere gure hizkerak baditu zenbait bereizgarri guztiok ezagutzea eta zaintzea merezi dutenak (aurreko horiekin hala egin behar ote dugun zuen esku uzten dugu); horren lekuko eta altxorraren lehen kutxa Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian daukagu Jose Mª Azpirozek bildutako Leitzako Hiztegia, hain zuzen ere.

Oso zoko ilunetan ez badago ere orri hauen bidez argi gehiago jasoko duzuelakoan, hurrengo aleetan puskaka kaleratuko dugu. Baina gogoan izan hitzentzat lekurik egokiena ez dela hiztegia.

# Zabaleta, Sagastibeltza,... ez diren beste horientzat!

Hizkuntak, edozein hizkuntzak, erabateko eraldaketa (transformazioa) darama berarekin batera; aldatuz doala alegia. Hala ere honekin bat eginez zera aitortu behar, beti, kasu guztietan aldaketa hauek ez direla zuzenak izaten. Hona hemen gaur dagokigun gaia; abizenak, deiturak. Aurreko garai ezberdinen ondorioa da gaur egun, kasu askotan, ikus dezakeguna. Deiturak, ohituraren poderioz, gaizki idazten ditugu, erdal grafia erabiltzen bait dugu. Euskarak badu bere alfabetoa eta araudia, zuzen idatz ahal izateko.

Iraila-Urria aldean, abizenak modu egokian azal daitezen, Nortasun Agirian (karneta), edozein paperetan, buzoietan, ... —eta gure burutan noski— informazio kanpaina bat zabalduko dugu, zer nolako tramitazioa egin behar den azalduz, eta edozein duda delarik, ahal den neurrian argi dezagun. Guzti hau Euskaltzaindiaren arautegian arabera eta bere laguntzaren babesean gauzatuz.

Dena den eta sarrera moduan hona hemen Leitzako zenbait deitura ezberdinen azalpen zuzena:

— «gui» ego «gue» dutenak. Asko dira era honetakoak; Otegui, Aguirre, Saralagui, Guereño, Arregui, ...

**Modu zuzena;** Otegi, Agirre, Saralegi, Gereño, Arregi, Iparragirre, Izagirre, Lopetegi, Apeztegia, Berasategi, Egiguren, ...

— «ch» dutenak. Bengoechea, Olaechea, Echarri, ...

**Modu zuzena;** Bengoetxea, Olaetxea, Etxarri, Apezetxea, Etxeberria, Telletxea, Etxegarai, ...

— «v» dutenak. Aldave, Vergara, Erviti, ...

**Modu zuzena;** Aldabe, Bergara, Erbiti, Etxeberria, Urretabizkaia, ...

— «c» dutenak. Alcorta, Alcoz, Recondo, Lazcano, Cestau, ...

**Modu zuzena;** Alkorta, Alkoz, Rekondo, Lazkano, Zestau, Ezkurra, Arozena, Apezetxea, Aldun(t)zin, Mariezkurrena, Martikorena, Zelaieta, Sukun(t)za, ...

— «m» dutenak. Aramburu, Gamboa, Aramberri, ...

**Modu zuzena;** Aranburu, Ganboa, Aranberri, ...

— «y» dutenak. Celayeta, Oyarzun, Aldaya, ...

**Modu zuzena;** Zelaieta, Oiartzun, Aldaia, Aierdi, Urretabizkaia, ...

— «qui» dutenak. Urquiola, Irazoqui, ...

**Modu zuzena;** Urkiola, Irazoki, ...

* Oharrak: «gui» edo antzekoak euskaraz «güi» balitz bezala irakurriko litzateke; Otegüi, Saralegüi, ...

— «ch», «v», «c» letrak euskal alfabetoan ez dira agertzen, beraz bere ordezkoak erabili behar dira; «tx», «b» eta «z edo k».

— Gazteleraz erabiltzen den «y» euskaraz»i» letrarengatik ordezkatzen da.

— Gazteleraren araudian , «p» edo «b» hizkiaren aurrean «m» erabili behar da baina hau ez da egokia euskaraz.

Batzurentzat, horrelako aldaketa egiteak, gogor xamar gerta dakioke. Hainbeste urtez, modu horretan idatzirik ikusita, era berean norberak betidanik idatzirik, lehen esaten genuen bezala gogor xamar gerta dakioke. Dena den, jakin badakigu, ohitura arazoa dela, ohituraren falta alegia. Pentsa dezagun, bide hau hartuz euskarari mesedea besterik ez diogula egiten. Animo bada!

## Gero eta gaztelera gehiago aditzen da Leitzan

Orri hori hauekin batera Euskara Batzordearen aldetik egiaztapen batzu egin nahi ditugu.

Leitza herri euskalduna da, noski. Jakintza maila %85ra iristen da. Duela laister urtebete, UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea)n sartu ginen. Orain dela bi hilabete UEMA EGUNA ospatu genuen bertan, baina egia dugu ere bai, egia tamalgarria, gero eta gaztelera gehiago aditzen dela gure kaleetan, tabernetan, komertzioetan, etxeetan, ...

Hau ikusirik galdera pare bat; Gure Kultura eta Nortasunaren aldeko ekimenek, kontrako jarrera dakartzate? Gero eta identifikazio haundiagoa bizitzen ari al gara espainol hizkuntzarekiko? Aski al da euskal bitartekoak lortzea (irakaskuntza, irratia, ...) gu bitartean erderaz mintzatzen garelarik?, ...

Galdera gehiago egin daitezke egoera honen aurrean, dena den, azaldu nahi dizuegu, norberaren, bakoitzaren, talde, koadrila edo familiaren eskutan dagoela egoera honi buelta ematea. Ez dezagun Administrazioarengan bakarrik utzi egoeraren errua. Gu ere errudun bihurtzen ari gara!

# Goizuetako Gazte Asanblada: gero eta indar gehiagorekin

XALBA INDAKOETXEA

Herriko festen atarian egonik, momentu egokia iduritzen zaigu Goizuetako Gazte Asanbladari buruz zertxobait hitzegiteko, honek antolatu baitu aurtengo gauarik martxosoena.

Badira jadanik hiru bat urte sortu zela gazte batzuen egonezinari esker. Herrian ez zegoen ezer, jende guztiak kanpora aldegiten zuen eta hemen zerbait antolatu behar zela eta lehengo bilerak egiten hasi ziren.



Pala Txapelketa da Gazte Asanbladak antolatu duen ekintzetako bat.

Lehen arazoa, beti bezala, dirua lortzearena izan zen. Boletoak eskuz egin eta hor ibili ziren lehendabiziko sosak biltzen. Herrian ez zen inoiz rock kontzertu bat izan eta hori prestatzea izan zuten lehen helburua. Kearrak, Pikutara eta Kanka ekarri zituzten pilota plazara eta kanpotik ere etorri zen jendea hauek ikustera.

Geroztik hamaika talde pasa dira gure herritik, rockeroak, berbeneroak eta abar, (Pottoka, Balerdi Balerdi, Anje Duhalde, Kojon Prieto, Mikel Laboa, Joselu Anaiak, Basajaun, Urtz, Ostikada, Brankan, Karkaxa, Sorotan Bele, Xaximiku, ...). Gazte Asanbladaren lanari esker ekintza hauez gain beste motatako batzuk ere atera dituzte aurrera: Lesakako Ibilaldia, umeentzat jokoak eta txokolatea, pala txapelketa, Euskal Rockari buruzko hitzaldiak, etabar).

Dirua eskuratzeko orain arte ez dute arazo haundiegirik izan, falta zitzaienean udalak eta Elkarteak beti eman bait die. Musika taldeak ordaintzeko tabernariek ere beti eman dute beraien dirulaguntza.

Lokala ere jadanik badute, Udaletxeko lehengo solairuan. Eman zietenean nahikoa izorratuta zegoen eta gazteek paretak berritu, margotu, argiak paratu, eta abar egin zituzten. Bertako komuna udalak konpondu zuen.

Arazoren bat izan zuten herriko mingain luze batzuekin, lokalean porroak erretzen zirelakoa zabaltzen hasi baitziren, baina Gazte Asanbladak beti gonbidatu ditu ikustera joateko, lokala jende guztiarentzat irekia dagoela, bainan oraindik ez omen dira azaldu.

Goizuetako Gazte Asanbladan ez dago listarik, estatuturik, legerik, edozein sar daiteke, hori bai, baldintza bat bete behar du: laneko gogoa ekartzea.

Ekintzak antolatzeko bilerak egiten dituzte baina ez da botaziorik egiten. Norbaitek ideia on bat izaten duenean bildu eta denak ados jarri arte hitzegiten dute. Gero arduradunak egiten dira lanak banatu eta errezteko.

Aurten, festetako izugarrizko kontzertua antolatu dute Argiaren laguntzarekin: Su ta Gar, Lin Ton Taun, Bittor Aiepe, Bizkar Hezurra. Gainera bi egunetan taberna paratuko dute eta jadanik jende dexentek eman du izena lana egiteko.

Segi horrela!





## IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

## ETXEKENEA OSTATUA

Besta zoriontsuak pasa itzazue!

Tfnoa: 45 01 64 • ZUBIETA



## TELLETXEA MOBLEAK

**Moble erakusketa haundia**

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

***Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.***
***1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan***

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

**Ortzirala 12:**
**7,30etan** Altxaferoa. Ondotik txistulariak auzoz auzo. **8,30etan** baztanzopak herriko ostatuetan. **12etan** musika Onofre akordeolariarekin.
**Larunbata 13:**
**Haurren Eguna**
**10etan** dianak. **12etatik 2etara** eta **5etatik 8etara** 'Pista Libre'. Arratsaldez eta gauez dantzaldia ATABAL taldearekin (gaupasa).
**Igandea 14:**
**10etan** diana. **1etan** aizkora apostua: Mindegia-Larretxea, Arrospide-Olasagastiren kontra. Arratsalde eta gauez dantzaldia ATABAL taldearekin.
**Astelehena 15:**
**Amabirjinaren Eguna**
**10etan** diana; **11,30etan** Meza Nagusia. Ondotik hameketakoa Herriko Ostatuan. **6,30etan** Collings Clown pailazoaren "Ongi etorri Mendebaldera" ikuskizuna. Arratsaldez eta gauez dantzaldia ATABAL taldearekin.
**Asteartea 16:**
**10etan** dianak. **2etan** zikiro-jatea Lizaso, Sarasua eta Mañukorta bertsolariekin. Arratsaldez eta gauez trikitixak GOZATEGI anai-arrebekin. Dantzaldia eta bertsolariak Euskara zerbitzua eta Nafarroako Gobernuaren bitartez.
**Goizaldera** zingar jatea bestei agurra emateko.



**1966ko Amabirjin egunean ateritako argazkia. Erdian zikiroa prestatzen eta bueltan, noiz bukatuko zain**

BELARRA Kafetegia
*Plater konbinatuak*
Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Olatz
Relojería
Joyería
GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK
*Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.*
*Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia*
*SAN PEDRO, 3 - Hondarribia*
☎ *(943) 64 56 78*

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S. L.
EGUNAREN 24 ORDUTAN
ZURE ESKU GAITUZU.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



Donamariako txistulariak kalejiran 1982ko Amabirjin egunean

RADIO BIDASOA

✓ TELEBISTA, BIDEOA, HI-FI, ELEKTROGAILUAK...
✓ SUKALDE MOBLEAK
✓ «CANAL +» BANATZAILEA

EZTEGARA PASEALEKUA 14 • BERA • TFNOA: 630377




IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

| Antzinaldeak | Tximiniak |
| --- | --- |
| Angeluak | Erlaizak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihoak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarriak |
| Arkuak | Marrazkiak |
| Pilareak | |

*'Abujardadoa' Mazizoa*
*Zahar antzekoa Txapeatua*

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

**Igandea 14:**
**9,30etan** afaria; gauez ANAT trikitixa.
**Astelehena 15:**
**12etan** Meza Nagusia; **1etan** aizkora apustua: Nazabal Larretxearen aurka. Arratsaldean dantzariak eta arratsaldez eta gauez dantzaldia SAIOA taldearekin.
**Asteartea 16:**
**10etan** Plater Tiraketa; Arratsaldean pilota partiduak afizionatuen eta haurren artean. Arratsaldez eta gauez dantzaldia IRATXO taldearekin.
**Asteazkena 17:**
**Umeen Eguna**
**10etan** Umeen Jokoak; **12etan** Futbito partidua (Ezkurra-Betelu); **5etan** Umeen Jokoak eta txokolatada; **6etan** Mus partida azkarrak; Arratsalde eta gauez dantzaldia IRATXO taldearekin.
**Osteguna 18:**
**Ezkonduen Eguna**
**12etan** Leitzeko Aurrera taldeko Dantzari Txikien dantzaldia; **2etan** herri bazkaria bertsolariekin; **6,30etan** Aizkora apostua Patxi Mindegia eta Jaunarenaren artean. arratsalde-gauez dantzaldia IRATXO Taldearekin.





**BARRANKA JATETXEA**
*Pesta zoriontsuak pasa itzazue!*
Tfnoa: 61 50 80 • EZKURRA


**AMEZTIA Jatetxea**
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - **DONEZTEBE**

**KIWI BAZTAN, S. A.**
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENEKO SALMENTA
MINDEGIA eta BULEGOAK:
Sutegia Etxea
**31795 LEKAROTZ**
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

BEKO ERROTA
**Lore eta landareak**
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

*Abuztuaren 14tik 19ra*



**Aurten ere Umore Ona peñaren inguruan bilduko da festaren zati haundi bat**

Joxe Guardan etxean bildutako argazkia

**Larunbata 6**
**Umeen Eguna**
**11etan** umeentzako jokoak. Toka eta xake txapelketak. **5,30etan** umeentzako jokoak. **7etan** txokolatada. **8etan** herriko trikitilarien emanaldia.

**Igandea 7**
**Umeen Eguna**
**9etan** entzierro txikia. Ondoren zezenak umeentzat. **11etan** herri meza, haurrak bertako jantziekin joanen direlarik. **12etan** pilota partiduak. **5,30etan** zezenak umeentzat. **7etan** udalak umeei eskeinitako berendua. **8etan** dantzaldia plazan.

**Igandea 14**
**Amabirjin bezpera**
**12etan** Udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emango dien itxaferoa botako da. Ondoren txistulari banda, erraldoi eta buruhaundien konpartsak herriko kaleen barrena ibiliko dira. **6etan** Oreretako Ereintza dantza taldearen emanaldia. **8,30etan** Umore Ona peñaren irteera, beren kalejirekin jaiak alaituko dizkigutelarik. Umore Ona peña izen bereko elkarteak antolatzen du.

Goizuetako Udalak
festa onak opa dizkizue
Goizuetar eta bisitari guziei

GOIZ ARGI TABERNA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 51 40 61 – GOIZUETA

HUIZI JATETXEA

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, Tfnoa: 51 40 39 – GOIZUETA

GURE TXOKO TABERNA

Festa on batzuk pasa

Herriko Plaza, Tfnoa: 514097 – GOIZUETA

**10,30etan** kantaldi erraldoia: Bittor Aiepe, Lin Ton Taun, Sutagar eta Bizkar Hezurra. Antolatzailea: Argia astekaria. Laguntzaileak: Gazte Asanblada eta udala. Ondoren, amnistiaren aldeko kalejira. **1etan** gaupasa ARKAITZ taldearekin eta Umore Ona txarangarekin.

**Astelehena 15**

**Amabirjinaren eguna**

**7etan** Tolosako dultzaineroekin diana. **8etan** entzierroa. **10,30etan** Meza Nagusia, segidan, Amabirjinarekin ohizko prozesioa. **12etan** Umore Ona dantza taldearen emanaldia. **12,30etan** 'Bomba japonesak' umeentzako opariekin. **1etan** eskuz binakako pilota partidua: Telleria-Bazeta, Urien-Mariezkurrena I. **6etan** zezenak plazan. **8etan** herri kirol jaialdia pilota plazan. Kozkor biltzen, sokatira, laisterka, zaku karrerak, trontzan eta aizkoran neurtuko dira Baztango bi talde eta Goizuetako gazteek osatutako beste talde bat. **12etan** dantzaldia



**Garai batean, toreroak ez ezik 'errejoneadoreak' ere ibiltzen omen ziren plazan zezenetan. Orduan plaza bete-betea ageri zen.**

Joxe Guardan etxean bildutako argazkia

**ZABALETA TABERNA**
Ongi pasa herriko festak
Nagusia 42 • © 514063 • GOIZUETA

URRUTINEA
TABERNA
Festa on batzu opa dizkizuegu

UNTXALO
LIBURUDENDA • PAPERTEGIA
Festa on batzuk opa dizkizuegu
GOIZUETA

UMORE ONA ELKARTEA



Festa ederrak pasa!!
GOIZUETA

*Abuztuaren 14tik 19ra*



Goizuetako neska dantzariak, 1969ko Amabirjin egunean

AISTRIKA taldearekin.

**Asteartea 16**

**12etan** eskuz binakako bi partidu interesgarri. Jubenilak; Arozena-Goizueta, Galarza IV-Iparragirre. Ondoren, Yaniz-Garcia, Aritz-Almandoz. **6etan** zezenak. 8etan bertso saioa plazan. Andoni Egaña, Estitxu Arozena, Unai Iturriaga eta Maddalen Lujanbio. Gaijartzailea: Inaxio Usarralde. **12etan** dantzaldia AKELARRE taldearekin.

**Asteazkena 17**

**7etan** diana. **8etan** entzierroa. **12etan** eskuz binakako bi partidu: lehenbizikoa gazteen artekoa eta ondoren, Artola-Imaz, Apezetxea II-Apezetxea I kontra. **6etan** zezenak. **8etan** Azpeitiako udal musika bandaren kontzertua. **12etan** dantzaldia ADUR taldearekin.

**Osteguna 18**

**Ezkondu eta Umore-Ona peñaren Eguna**

**12etan** gazteen arteko eskuz binakako pilota partidua. Ondoren, aspaldiko ohitura jarraituz, Goizueta eta Aranoko ordezkarien pilota partidua. **3etan** Umore Ona taldekoen bazkaria, ondoren **5ak aldera**, Umore Ona peña bere txarangarekin kalez kale ibiliko da. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezenak. Ondoren dantzaldia JOXELU ANAIAK taldearekin. **12etan** dantzaldia JOXELU ANAIAK taldearekin.

**Ostirala 19**

**Bakailu-jate eguna**

**10etan** plater tiraketa Ehiztarien elkarteak antolatua. **5etan** Pista Libre, haurrentzako ikuskizuna: moto, karts...

**7etan** toka txapelketa, Umore Ona elkarteak antolatua. **8etan** dantzaldia IZOTZ taldearekin, ondoren, Xebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolarien saioa. **10etan** bakailu-jatea. Festei bukaera emateko **12ak aldera** IZOTZ taldearekin dantzaldia.

NORDIA

# EKIPAL

## Komertziorako mobleen fabrika

*Kalitate eta prezioaren arteko orekarik hoberena*

**Edozein klasetako komertzioa duzula, ekipatzeko behar dituzun moble guzti guztiak guk fabrikatuko dizkizugu**

**LANTEGIA, ALMAZENA ETA ERAKUSKETA:**

Bekolanda auzoa • ☎ 514225 • Faxa: 514271 • **GOIZUETA**



**Igandea 14**
**Arratsaldeko 6etan** udaletxetik suziria botako da, pestei hasiera emanez. **10,30etan** X. Mus txapelketa. **11etan** kantaldia Garbiñe eta Leirekin. **1etan** dantzaldia Joxe Angelekin.

**Astelehena 15**
**Amabirgin eguna**
**9etan** diana. **11,30etan** Amabirginaren ohorezko Meza Nagusia, udal korporazioa bertan izango delarik. Ondoren ohizko bazkalaurreko janedariak eskeiniko dira. **1etan** pilota partidua: *HUIZI II - ZABALA, OTXOTEKO SALABERRIAren aurka.* **7etan** aizkol apustua: *JAUNARENA-LOIARTE, NAZABAL-PATXI MINDEGIAren aurka.* **8etan** dantzaldia DRINDOTS taldearekin. **Gauerditik goizaldera** arte dantzaldia DRINDOTS.

**Asteartea 16**
**12etan** zonaldeko akordiolariak plazan. **1etan** X. mus txapelketaren finala. **5etan** plater tiraketa. **7etan** herriko dantzariak. Arratsaldez eta gauez dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Asteazkena 17**
**Haurren Eguna**
**11etatik 2ak arte** eta **4etatik 6ak arte**





**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**ZIZKA**
**OSTATUA**
**Martxa eta mozkor saltsa**
Altzate 28 - **BERA**



umeentzat jokuak plazan eta 'karts' autoen pista bat izanen delarik. **6etan** antzerkia. **7,30etan** toka txapelketa umeentzat. Arratsaldez eta gauez dantzaldia TRAKETS taldearekin.

**Osteguna 18**

**12etan** toka txapelketa nagusientzat. **1etan** pilotari gaztetxoak: Areso-Lekunberri. **7etan** aizkolariak: Arrospide-Olasagasti, Larretxea-Mindegiaren kontra. Arratsaldez eta gauez dantzaldia TRAKETS taldearekin.

**Igandea 21**

**10,30etan** Mendi-bizikleta ibilbidea Larrea elkarteak antolatua. **5etan** 'Recortadores' zezenarekin.

Festetako egun guztietan sokamuturra izango da. Arratsaldeko 5etan txikiak umeentzat eta goizeko 3etan nagusientzako.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ARRATZUBI ardotegia
Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN
- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoa
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

TRAFFIC
GIZONEZKOEN MODA
Negozioa ixten dugula eta, LIKIDAZIO OSOA
IRUNgo LUIS MARIANON

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Abuztuaren 13an** gaueko 10etan Maria del Mar Bonet. Nafarroako Festibalen ekitaldien barnean.

### GOIZUETA

**Abuztuaren 14ean** 'ARGIA JAIALDIA'. Gaueko 11etan, Sutagar, Lin Ton Taun, Bittor Aiepe, Bizkar Hezurra. Aurrez sarrerak salgai 1.000 pezetatan, Beran Puy eta Errekalden, Lesakan Atxaspi eta Arranon, Donezteben Titin, Elizondon Intzan, Iturengo Herriko Ostatuan eta Leitzan Leitzarra ostatuan.

## DANTZAK

### ELIZONDO

**Abuztuaren 12an** gaueko 10etan, Karmen Larunbe dantzariaren 'Nuevo tango y boleros' ikuskizuna.

## GUARDIAKO BOTIKAK

**Abuztuaren 15etik 21ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (F. Lezaun), Goizueta, Lekunberri.
**Abuztuaren 22tik 28ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.
**Abuztuaren 29tik irailaren 4ra** Arantza, Narbarte, Irurita eta Goizueta.
**Irailaren 5etik 11ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

## ERREZETA

# *Marmitakoa*



Pello GARMENDIA
Eskisaroi Jatetxea
•Elizondo•

**Osagaiak**
*• 400 gr. atun • 700 gr. patata puskatua • tipula bat xehe-xehe egina • 2 piper berde • baratxuri pikor bat • Bi tomate gorri puxka ttikitan xehetua •*

**Prestatzeko manera**
Lehenik atuna garbitu eta hezurrarekin salda bat eginen dugu. Bertzalde, ontzi batean olioa jarriko dugu zola tapatu arte eta bertara baratxuria botako dugu. Segidan tipula eta piperra ere botako ditugu puxkatan moztuak eta 5 edo 8 minutuz su eztian utzi ongi izerditzeko. Behin izerdituak direla tomatea botako dugu eta bertze 2 minutuz utzi. Denbora hau pasatu denean patata eta gatza bota eta 12 edo 15 minutu gehiago utzi. Hau egin ondotik, atun-hezurrarekin egin den saldaren ura bota osagai guztiak tapatu arte. Egina dagoenean, atuna zatitan puskatu eta gainetik bota eta minutu bat egosi. Nahi izanez gero pikantea erantsi.

## BASERRIA

### ❖ ZERRIKIA ❖

•**Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.000 pzta.
•**Zerri gizena** (95-100): 186 pzta/kilo
•**Zerramak**: 110-120 pzta./kilo bizirik.

### ❖ BEHIKIA ❖

•**Aretze gizenak**:
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal
Extra ............ 600
1.koa ............ 570
2.koa ............ 550

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal
Extra ............ 610
1.koa ............ 580
2.koa ............ 550
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 36.000 Pzta.
**Mestizoak:** urruxak 38.000 eta idixkoak 50.000 pzta.

•**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 440 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 500 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...

### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoa** 930.
• **Udareondoa** 930 pta.
• **Gereziondoa** 1.050 pta.

### ❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.
• **Valentziar tipula** zient. 250.
• **Letxuga** zientoa 400 pta.
• **Azelga** zientoa 400 pta.
• **Pepino** sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO
erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
*ITUREN*
*Tfnoa: 45 04 91*


KATTU
OSTATUA
JATETXEA
- *Karta*
- *Eguneko menua*
Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**

JAKIN BEHARREKOA

# *Uda eta osasuna*

**Uda iritsi zaigu eta honekin batera oporrak. Denbora libre gehiago izatearekin, planak egiten hasten gara. Irteerak, bidaiak... egunerokotik ateratzea eta ongi pasatzea da kontua.**

Bainan aunitzetan aldaketa hauek direla eta, ustegabean gure osasun maila arriskuan jartzen dugu. Aski da ohartxo batzuk kontutan hartzea osasun arazorik ez izateko.

### Hondartzetan, igerilekutan...

• Kaso egin sokorristen oharrei.
• Gogora ezazu: bandera gorria dagoenean debekatua dago bainatzea.
• Eguzkia pixkanaka hartu eta kremaren bat eman larruazala babesteko.
• Eguzkitan, haurrak oraindik babes haundiagoa gorde behar dute. Beharrezkoa dute txapela eramatea eta ur asko edatea.
• Bainatu aurretik dutxatu.
• Jan eta segituan ez da komeni bainatzea. Liseriketa denbora errespetatu (2 ordu terdi).
• Ez da komeni uretan gehiegi nekatzea.
• Uretan pixkanaka sartu.
• Otordu pisua edota ariketa fisiko gogorra egin ondotik ez da komeni bainatzea.
• Ez bainatu ur kutsatu eta zikinetan.
• Ingurunea ez zikindu.

### Edateko ura

• Iturri fidagarrietatik edan. Urak kloro usaina edo gustoa izatea seinale ona da. Tratatua izan dela adierazten du.
• Iturriak garbiak eta babestuak behar dute izan.

### Otordutan

• Arraultze gordina erabili den ontzietan ez paratu beste janaririk, ez eta tortilari buelta emateko erabili.
• Harakia ongi egina izan dadila.
• Ez berotu behin eta berriz egina dagoen janaria.
• Higinizatutako esnea edan. Esne naturalak ongi egosi.

### Erosketetan

• Etiketatua eta kaduzitate data izatea exigitu.

### Janarien higienea

• Gorde janariak hozkailuan.
• Janari gordinak eta eginak ez dute elkarren ondoan egon behar; ezta barazkiak haragi eta arrainen ondoan ere.
• Janarietan ez dute intsektuek ibili behar.
• Edozein janari erabili aurretik eskuak eta sukaldeko tresneria garbitu.



**Ez ahantzi: edozein arazo izanez gero, osasunerako kaltegarria den zerbait nabarmen ikusiz gero, Erreklamazio Liburua eskatu eta idatzi.**

ARANTZA ZABALA
ERIZAINA

MAGNETISTA - NATUROPATA
ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✌ BISTAREN ERREKUPERAZIOA
• Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neurtitisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

✌ REHABILITAZIOA
• Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurdurak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasia, diabetea, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN ✆ (943) 62 30 55

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

**NARBARTE**

**Abuztuaren 23an** Herriko Bestak San Feliperen ohorez.

**LEGASA**

**Abuztuaren 28an** Herriko Bestak San Agustinen ohorez.

### GASNA LEHIAKETA

**AMAIUR**

**Abuztuaren 15ean** Goizeko 11etan Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko II. Gasna Lehiaketa. Arratsaldeko 4,30etan Artzai Zakur Txapelketa.

### PASTORALA

**ELIZONDO**

**San Mixel Garikoitz Pastorala** abuztuaren 20an arratsaldeko 8etan Nafarroako Jaialdien barnean.

### ANTZERKIA

**ELIZONDO**

**Els Joglars** abuztuaren 26 eta 27an gaueko 10etan Nafarroako Jaialdien barnean.

### EUSKARA IKASTAROAK

**Uda osoan** IKAk antolatuak, lau orduko ikastaroak Lesaka, Etxalar, Arantza, Doneztebe eta Leitzan. Maila guztiak.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ☎ra

## ETXEBIZITZAK

**Borda** argiarekin erosiko nuke Bera, Lesaka, Etxalar edo Sunbillan. ☎ 206502 (Lourdes).

**BERA.** Pisua eta bajera salgai. ☎ 631218 (6etatik goiti).

**Pisu** bat alokatu nahi nuke Doneztebe eta Irurita artean. ☎ 247893 (Carlos).

**Pisu** bat alkilatuko nuke. ☎ 294193 edo 340339.

**LESAKA.** Txaleta, jardina eta frutondoekin salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 637453.

## DENETARIK

**Baserrietako** mobleak eta laborantzarako tresnak erosiko nituzke. ☎ 450054 (gaueko 9etatik 10etara).

**Bigarren** eskuko hozkailua nahi nuke. ☎ 635290 (Xabi).

**Momty Triasin** T-219 bizikleta salgai. Freno hidraulikoak, koadroa aluminiozkoa eta gibeleko rueda zabala. Hagitz egoera onean eta hagitz merke salduko nuke. ☎ 635219 (Arratsaldeko 8,30etatik 9,30etara).

**Sukalde-kalefaktora** salgai ☎ 637883.

**Negozio bat** traspasatu edo eskuz aldatzen da Baztanen. ☎ 592245. Denda ordutegietan.

**Sukalde-kalefaktora** salgai Egoera onean dago. ☎ 510296.

**Garajea** salgai Elizondoko Santiago karrikan. 22 m². ☎ 452460.

**Tartak** egiten dira: urtebetetze, ezkontza etabarretarako. ☎ 631283.

**Jostun lanak** egiten dira. Kojinak, gortinak eta haurrendako arropak orrokorrean. ☎ 631283.

## AZIENDAK

**Ardi zakurkumeak** salgai. ☎ 634062 (eguerdi eta arratsez).

**Ardi txakurkumeak** salgai. Hoien amak ardiekin lana oso ongi egiten du. ☎ 504492.

**Bi ahare** salgai. Bat pintarria 3 urtekoa eta bertzea horia 4 urtekoa. ☎ 634169 (Juana Mª-Benito).

**Bi txakurkume** oparitzen ditu Leitzan Eneko Astibiak. ☎ 510268.

**Ahariak** salgai Hernanin. Mutur gorriak eta adar gabeak. ☎ (943) 221686 (9etatik aurrera).

## LANA

**Herriko** bestetan, sukaldeko laguntzaile modura edo barrean lan eginen nuke. 22 urteko neska bat naiz. ☎ 630650 (Edurne).

**Klase** partikularrak ematen ditut: OHO, REM eta euskara. ☎ 635186 (eguerditan. Arantza).

**Kartelak**, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego ordutan).

## IBILGAILUAK

**Hagitz egoera** onean dagoen FSO markako SS-8643-Aj matrikula duen kamiotxoa salgai 325.000 pezetetan. ☎ 631339 (Joakin, gauez).

**Renault Express** Hobby diesela, NA-AD matrikuladuna, ia berria salgai. ☎ 637784 (gaueko 9etatik 10etara).

**Renault Clio** 1.700S salgai, NA-AG matrikuladuna extrekin. ☎ 630492 (8etatik aurrera)

## AGURRAK

**Ainhoa Goñi:** Zorionak 17. urte betetzean (uztailak 29). Muxu bat Joanes eta Naiaren partez.

**Koxkontako** Luperi: Neska oso jatorra zara eta oso ondo irakasten duzu, bainan nik beldur asko nuen. Ulertuko eta barkatuko nauzulakoan, zorte on opa dizut beste batekin.

**Zorionak** eta muxu haundi bat Naiara eta Unai anai-arrebentzat, Aresoko Garbiñen partetik.

**Olabide**ko Mª Carmen Elizalderi zorionak zure 22. urtebetetzean (abuztuak 2). Ongi ospatu eta kontu txanpan pixkat guretzat. Lourdes eta Aliziaren partez.


# 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,**
**2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**
**4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,**
**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,**
**dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**
**aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,**
**bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,**
**hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.*
*Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial
LUIS MARIANO
Irun




# BAZTAN, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO

# 2. GASNA LEHIAKETA

## Amaiurren, abuztuaren 15ean, Igandea, goizeko 11etan

### Lehiaketaren Oinarriak

1.- Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin bizi diren artzai eta gasna egileek parte har dezakete.

2.- Ardi gasna txapelketa da; 60 egun eta 6 hilabete tarteko gasnentzat.

3.- Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake.

4.- Gasna bakoitzaren truke 1.300 pezeta emanen da.

5.- Gasnak, abuztuak 15ean, goizeko 11ak baino lehenago ekarri beharko dira Amaiurko plazara.

6.- Sariak: 1.- 15.000 pzta eta trofeoa
2.- 12.000 pzta eta trofeoa
3.- 8.000 pzta eta trofeoa

7.- Gasnak, Besta Batzordearen esku gelditukodira.

---

**Informazio gehiago nahi izanez gero 453233 edo 453267 telefonoetara deitu**

# ¡¡Felices Fiestas!!
# ¡¡Besta Zoriontsuak!!



CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA